



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilak 25

Vitoria-Gasteiz, 25 de enero de 2022

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK BEFESA, BILBAÍNA DE ALQUITRANES ETA CLH ENPRESEN KANPOKO LARRIALDIETAKO PLANAK ONARTU DITU

- **Babes zibileko plan horien helburua da erantzun hobea antolatzea gerta litezkeen eta enpresen kanpoaldean eragina izan dezaketen istripuen aurrean**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Zornotza), BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Sondika), BILBAINA DE ALQUITRANES SA (Barakaldo) eta CLH (EXOLUM) SA (El Calero) enpresen kanpoko larrialdietako planak. Kanpoko larrialdietako planak babes zibileko plan bereziak dira eta instalazio horietan gerta litezkeen eta enpresaren kanpoaldean eragina izan dezaketen istripuen aurrean kanpotik erantzuna antolatzea dute helburu.

Era horretako planak Europako SEVESO zuzentarauaren esparruan egiten dira, eta enpresek barneko larrialdietako planetan aurreikusitako neurriak osatzen dituzte.

Plan horiek lantzeko prozedurak erreferentziako araudian ezarritakoari jarraitu dio, hau da, aldeko iritzia jaso zuten Euskadiko Babes Zibilerako Batzordeak 2020ko abenduaren 9an egin zuen ohiko batzarrean, bai eta Babes Zibilerako Kontseilu Nazionalaren oniritzia ere 2021eko urriaren 19an.

Lana eta Enplegua

GIZARTE EKONOMIAKO SAILARTEKO PLAN ESTRATEGIKOA (GESPE)

Gobernu Kontseiluak Gizarte Ekonomiari buruzko Sailen arteko lehenengo Plan Estrategikoa ezagutu du gaur. Plan horren izenburua "Arlo kolektiboaren indarra, lurraldean errotua" da, Gizarte Ekonomiako familia guztien ikuspegi integrala hartzen du, eta inplikaturako Eusko Jaurlaritzako sailen ekarpenak barne hartzen ditu. Horri esker, koherentzia, osagarritasuna eta inplikaturako politika eta araudien koordinazioa eman daitezke, eta lau urtetan 328,5 milioi euroko inbertsio publikoa egitea aurreikusten da.

Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburu Idoia Mendiak jakinarazi du Legebiltzarrean agerraldia eskatzeko asmoa duela, eta gogorarazi du Plana konpromiso baten zati dela, Gobernuak legealdi honetan gizarte-ekonomiaren zeregina indartzeko dituen helburuei erantzuten diela, eta hori 2021eko martxoaren 4an onartutako legebiltzar-akordioarekin osatu zela, gizarte-ekonomiaren esparru estrategiko bat lantzeko sailen arteko zeharkakotasunetik eta sektorearen parte-hartzearekin.

Era berean, 2030eko Euskal Enplegu Estrategian finkatutako helburuari erantzuten dio. Estrategia horren arabera, ekimen kolektiboa da hamarkada honetan gehien landu beharreko ardatzetako bat, frogatuta baitago proiektuei ekiteko modu kolektibo horrek aukera ematen duela energiaren, teknologiaren eta egoera soziosanitarioaren aldaketa handien ondorioz gertatzen diren egoera aldakorretara hobeto egokitzeko. Horrez gain, Europako Batzordeak Gizarte Ekonomiako Europako Plana onartu du duela gutxi, abenduaren 9an. Plan horrek lankidetzak eta partaidetzak ekonomiko formula batean sakontzearen aldeko apustua egiten du, eta Euskadik esperientzia handia du formula horretan sektore guztietan.

Politiken esparru lerrokatu horretan, Plan Estrategikoak erantzuten dio sektoreak eta Legebiltzarrak gizarte-ekonomian esku hartzen duten eragile guztien (enpresak eta erakundeak, sektore-elkarteak, erakundeak, bitartekaritza-erakundeak eta garapen ekonomikoko erakundeak) zerbitzura erreferentziatzeko dokumentu bat izateko duten nahari. Helburu horrekin, aurretiko diagnostiko batetik abiatzen da, eta Gizarte Ekonomiako familiek planteatu dituzten premiak, lehentasunak eta erronkak zehazten dira.

Plana urte osoan zehar egin da, elkarrizketa pertsonaletan, lantaldeetan eta Sailarteko Mahaiaren bileretan oinarrituta, eta, azkenik, zirriborro-dokumentua inplikaturako Eusko Jaurlaritzako sailei eta sektoreko eragileei bidali zaie, ekarpenak eta iradokizunak egin ditzaten gonbidatuz. Arreta berezia jarri da zeharkakotasunaren kulturaren, inplikaturako eragile publikoen eta pribatuen arteko loturak kontuan hartuta eta Gizarte Ekonomiak datozen urteetan aurrera egingo duen norabidean eta erritmoan eragina duten beste Plan batzuekiko artikulazioa kontuan hartuta (Ekintzailaketa Plana, Enpleguaren Euskal


Estrategia eta Enplegu Plana, 2021-2024 Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plana, eta abar).

Oinarri horren gainean, Gizarte Ekonomiaren balioak definitzen dira, Nazio Batuen 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuei ere erreferentzia egiten dietenak: barne-elkartasuna eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko konpromisoa, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea eta iraunkortasuna sustatzen dituenak.

Helburuak eta baliabideak

Plan Estrategiko hau gauzatzeko, zazpi sail eta hainbat erakunde autonomo eta Gizarte Ekonomiako familiak hartu dira parte, 25 elkarrizketa eta lan-bileren bidez. Plan Estrategiko honek inbertsio publikoa urtero handitzea aurreikusten du, eta guztira 328,5 milioi izatea lau urteetan. Sei ardatz estrategikotan egituratzen da, eta horien artean, lehenik eta behin, ekintzailtza kolektiboaren sustapena nabarmentzen da, baliozko formula gisa aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko, prestakuntza lortzeko, gure gazteek gizarte-ekonomiarekiko interes handiagoa izan dezaten, eta ekonomia modu alternatibo bat ikusarazteko, Planaren tituluak dioen bezala, lurraldean errotzen dena.

GIZARTE-EKONOMIAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK



6 ardatz estrategiko horiek beste 12 ardatzen bidez garatzen dira, eta, ondoren, hamar ekintzatan gauzatzen dira, jarduera-ildoetan multzokatuta, horietako bat genero-berdintasuna sustatzeko.

<p>HELBURUA: GIZARTE-EKONOMIAKO EKINTZAIETZA-EREDUA ZABALTZEA: ENPRESA ETA ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEAK</p>
<p>1. ARDATZA: Gizarte-ekonomiako ekintzaietza bultzatzea, dauden enpresak indartzea, informatzaileen eta preskriptoreen sarea eta aholkularitza-zerbitzuak hobetzea</p>
<p>2. ARDATZA: Gizarte Ekonomiako ondasun eta zerbitzuen eskaria sustatzea, erosketa publiko arduratsuaren bidez</p>
<p>HELBURUA: GIZARTE-EKONOMIAKO PRESTAKUNTZA SUSTATZEA</p>
<p>3. ARDATZA: Gizarte-ekonomiako prestakuntza sustatzea eta integratzea hezkuntza-etapa guztietan, inplikaturako eragileen artean eta sektorean bertan</p>
<p>HELBURUA: GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEK/ERAKUNDEEK FINANTZAKETA ESKURATU AHAL IZATEA BERMATZEA ETA ZABALTZEA, ETA EREDUARI KOHESIOA ETA ERAKARGARRITASUNA EMATEA, LANKIDETZAREN BIDEZ.</p>
<p>4. ARDATZA: Enpresa-ekimen, enpresa eta erakunde txiki berrietarako behar den finantza-euskarria ematea, ekimen horiek finkatzea bideragarria eta jasangarria izan dadin.</p>
<p>5. ARDATZA: Ereduari kohesio eta erakargarritasun handiagoa ematea, gizarte-babesa hobetuz</p>
<p>HELBURUA: EKONOMIA SOZIALAREN EREDUA ERAKARGARRIAGO EGITEA ETA IKUSGAITASUN HANDIAGOA EMATEA, BERE BERTUTEAK ZABALDUZ</p>
<p>6. ARDATZA: Gizarte Ekonomiaren ereduaren ikusgarritasuna eta gizarte-harmena hobetzea, eredu hori zabaltzea eta finkatzea errazteko bitarteko gisa, bere jardueraren hedapena ziurtatuz</p>
<p>7. ARDATZA: Gizarte Ekonomiari buruzko neurketa- eta ezagutza-sistema garatzea</p>
<p>HELBURUA: POLITIKA PUBLIKOEN GOBERNANTZA HOBETZEA ETA LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA SUSTATZEA</p>
<p>8. ARDATZA: Gizarte Ekonomiari laguntzeko politika publikoen efizientzia eta efikazia hobetzea</p>
<p>9. ARDATZA: Gizarte Ekonomiaren esparru juridikoa aztertzea eta garatzea, hedapena mugatzen duten oztopoak kenduz</p>
<p>10. ARDATZA: Genero-berdintasuna sustatzea gizarte-ekonomiako enpresetan eta erakundeetan</p>
<p>11. ARDATZA: Gizarte Ekonomiako familien artean aliantzak eta osagarriak sustatzea, EGESen bitartez, topagune gisa</p>
<p>HELBURUA: LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA</p>
<p>12. ARDATZA: Enpresen Gizarte Erantzukizunaren eta GJHen garapena eta langileen parte-hartzea sustatzea enpresetan</p>

Lana eta Enplegua

GOBERNU KONTSEILUAK JUAN CARLOS IBARROLA LANBIDEKO PRESTAKUNTZA ZUZENDARI IZENDATZEA ONARTU DU, JESUS LOSADAREN ERRETIROA DELA-ETA

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak Juan Carlos Ibarrola Lanbideko Prestakuntzako zuzendari izendatzea onartu du, Jesús Losadak otsailean 1ean erretiroa hartuko duela aurreikusita.

Ibarrola Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean, eta Marketin Masterra du EHUan. Bere ibilbide profesionalaren zatirik handiena lotuta egon da Hobetuz Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioarekin, hau sortu zenetik, eta 1997an Bizkaiko lurralde-zuzendaritza hartu zuen bere gain, 2010etik zuzendari kudeatzaile izateko. 2020an Lanbiden hasi zen lanean, Enplegurako Lanbide Heziketaren Zerbitzuko koordinatzaile gisa.

Azken urte honetan, Idoia Mendia lehendakariordeak proposatu eta Gobernu Kontseiluak ekainean onartu zuen dekretuari jarraiki, Prestazioen eta Inklusioaren Zuzendaritza berri bat sortu zen, ordura arte Prestakuntzari lotua, eraginkortasun handiagoa izan zedin Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Gutxieneko Diru-sarrera kudeatzeko eta planifikatzeko; azken hori, hain zuzen, euskal integrazio eta transferentzia osoko agindu gisa sartu zen.

Hala, Losada Prestakuntza Zuzendaritza birbideratzen hasi zen Ibarrolak bere gain hartu beharko dituen erronka berrietara, kontuan hartuta 2030eko Euskal Enplegu Estrategiak langileen etengabeko prestakuntza behar gisa jartzen duela kalitatezko enpleguak mantendu eta eskuratu ahal izango dituztela bermatzeko, eraldaketa azkartuko prozesuetan dauden enpresen eskakizunetara doituta, eta prestatzen ari den Euskal Enplegu Sistemaren Legian, Lanbidek bermatuta, eskubide subjektibo gisa jasoko dela.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

ETIKA PUBLIKOKO BATZORDEAK BERE KIDE BI BERRITU DITU

- **Gobernu Kontseiluak Elsa Gonzalez eta Fernando Tapia organo horretako kide izendatu ditu gaur, Elisa Perez eta Txetxu Ausin ordezkatzuz**
- **Jaurlearitzako goi-kargudunek kode etikoa betetzen dutela ziurtatzeko eta kontrolatzeko eskumena duen organoko kide berriek ospe profesional handia dute etikarekin, zuzenbidearekin edo gobernantza publikoarekin zerikusia duten gaitan**

Gobernu Kontseiluak Elsa Gonzalez Esteban eta Fernando Tapia Alberdi izendatu ditu Etika Publikoko Batzordeko kide gisa, Administrazioetik kanpokoak diren biak. Etika, zuzenbide edo gobernantza publikoarekin zerikusia duten gaitan prestigio profesional ezaguna duten bi pertsona dira, eta filosofia, etika edo zuzenbidearen arloan unibertsitate irakaskuntzarekin lotutako karrera profesional emankorrak dituzte biek ala biek.

Etika Publikoko Batzordeko bi kide berriek Elisa Perez Vera eta Txetxu Ausin Diez ordezkatu dituzte. Azken horiek, hainbat urteko dedikazioaren ondoren, uko egin diote organo hori berritzea ahalbidetze aldera. Magistratua 2013an sartu zen Batzordean, eta filosofoa bi urte geroago, 2015ean.

Egungo legealdia abiatu zenetik Etika Publikoko Batzordeko beste hiru kideak hauek dira: Olatz Garamendi, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailburua, presidente lanetan; Jose Maria Armentia, Funtzio Publikoko sailburuordea, batzordekidea; eta Jon Urbina, Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendaria, idazkari lanetan, azken honek hitza bai baina botorik ez duena.

Elsa Gonzalez eta Fernando Tapiaren izendapenak, Garamendi Sailburuak proposatuta, Etika Publikoko Batzordeari bultzada berri bat eman nahi dio, autokonplazentzian eta errutinan erortzea saihestuz.

Elsa Gonzalez Jaume I Unibertsitateko (Castelló) Filosofia eta Soziologia Saileko Filosofia Moraleko irakasle titularra da eta Filosofian (enpresako etikan) doktore ere bada. Etika diskurtsiboan, enpresaren erantzukizun sozialean, erakunde eta administrazio publikoetan, gobernantza kosmopolitan eta balioen kodeetan espezializatuta dago. Bere ikerketa proiektuak kudeaketa etikoko sistemak abian jartzeko diseinuan edo aholkularitzan zentratu dira, hainbat tresna erabiliz: etika eta jokabide kodea, etikari eta gizarte erantzukizunari buruzko txostenak, gobernu onari buruzko txostenak eta ildo etikoen ezarpena, besteak beste. Estatu espainiarreko eta beste herrialde batzuetako ikerketa proiektu askotan parte hartu du. Etika eta Filosofia Politikoaren Espainiako Elkartearen kidea da.

Fernando Tapia Zuzenbidean lizentziaduna eta doktorea da EHUan, eta Zuzenbidearen Filosofiako irakasle da euskal unibertsitate publikoan 1997tik. Gaur egun, unibertsitate horretako Ikasleen eta Enplegarritasuneko errektoreordea da, eta baita Etika Praktika Komunitateetan ikerketa taldeko kidea ere. Joxemari Korta I+G zentroko zuzendaria eta EHUKo Garapen Zientifiko eta Transferentziarako errektoreordea ere izan da.

Etika Publikoko Batzordea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko goi-kargudun eta behin-behineko langile guztiek sinatutako Etika eta Jokabide Kodea ez betetzearen inguruko oharrak, kontsultak, iradokizunak, kexak edo salaketak jasotzeko eskumena du.

Etika eta Jokabide Kodearen sinatzailearen ekintzen edo ez egiteen larritasunaren edo ondorioen arabera, Etika Publikorako Batzordeak hainbat jarduketa proposa diezazkioke Gobernu Kontseiluari, hala nola, berehalako kargu uztea (baldin eta berariaz jasotako jokabide estandarrak ez betetzeari eragiten badio), organo eskudunari helaraztea, jokabide bati hasiera eman, instrukzioa egin edo zehapena jar diezaion. Gainera, Etika Publikoko Batzordearen eginkizunen artean Etika eta Jokabide Kodea bultzatzea ere badago.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

BEDERATZI MILIOI EUROTİK GORA LEADER EREMUETAKO LANDA-UDALERRIETAKO SUSTAPEN, GARAPEN ETA DIBERTSIFIKAZIO EKONOMIKORAKO

- **Euskadiko 2015-2020 aldiko Landa Garapenerako Programaren esparruan**
- **2017az geroztik, programa horren kargura konprometitutako laguntzak ia 39 milioi eurokoak izan dira**

Eusko Jaurlaritzako kontseiluak 2022rako laguntzen oinarriak onetsi ditu LEADER eremuetako landa-udalerrietako sustapen, garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako, Euskadiko 2015-2020 aldiko Landa Garapenerako Programaren esparruan. Hain zuzen, plan horrek indarrean jarraitzen du 2023an NPE berria abian jarri arteko trantsizio-aldian. Ekitaldi honetarako zuzkidura ekonomikoa bederatzi milioi eurotik gorakoa da.

Laguntzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak kudeatzen ditu MENDINET Tokiko Ekintza Taldearekin batera, eta helburu dute ekintzailtza, kontratazioa eta etxebizitza eskuratzeko aukerak babestea. Halaber, enpresak sortzeko, handitzeko eta modernizatzeko inbertsioak egitea dute xede, bai eta oinarrizko zerbitzuen azpiegituretan eta landako eta itsasertzeko inguruetako berrikuntzan inbertitzea ere.

LEADER eremurako aukeratutako euskal udalerriak hartzen dituen eremu geografikoan aplikatuko dira laguntzak (guztira 122; horietan, 93.000 pertsonatik gora bizi dira). Laguntzak dirulaguntza ez itzulgarriak izango dira, eta horiez baliatu ahal izango dira pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, nortasun juridikoa dutenak ala ez dutenak, edo unitate ekonomiko edo ondare banandu mota oro, nortasun juridikorik izan ez arren udalerrri horietan aurreikusitako proiektuak eta jarduerak egin ditzaketanak.

Laguntza-lerroen arabera

Laguntzen deialdi honek 9.112.000 euroko aurrekontu-zuzkidura du. Funts horiek honela banatuko dira laguntza-lerroen arabera:

- Ekintzailtza babesteko laguntzak: 140.000 euro.
- Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioei laguntzak: 3.180.000 euro.
- Besteren konturako kontrataziorako laguntzak: 60.000 euro.
- Azpiegiturek, oinarrizko zerbitzuak eta udalerrietako berrikuntza-lanak egiteko laguntzak: 5.432.000 euro.
- Etxebizitzarako laguntzak: 300.000 euro.

Eskariak aurkeztea

Pertsona fisikoek modu presentzian nahiz elektronikoa aurkeztu ahal izango dituzte eskariak.

- Presentziala: eskari guztiak «MENDINET Landa Garapenaren Aurrerapenerako Elkarteak» aurkeztu behar dira, helbide honetan: Arkauti kalea z/g, 01192 Gasteiz, Araba.
- Elektronikoa: www.euskadi.eus/servicios
-

Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek elektronikoki tramitatu beharko dute laguntza.

Eskariak aurkezteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2022ko martxoaren 25ean amaituko da. Dena dela, epe hori baino lehen aurkeztutako eskariak onartuko dira, deialdiaren ekitaldian aurkeztu badira.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

OSTALARITZARAKO 22 MILIOIKO LAGUNTZA BERRIEK GAUEKO AISIALDIA ETA ENPLEGUAREN BABESA NABARMENDUKO DITUZTE

Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak agerraldia egin du **gaur ostalaritzarako eta gaueko aisialdirako laguntza-programa berria, 22 milioi eurokoa**, onartu duen Gobernu Kontseiluaren ostean.

Sailburuak azaldu duenez, Euskadiko ostalaritzak orain arte **100 milioi euroko** laguntzak izan ditu: 15 milioiko lehenengo Covid laguntzak, Euskadiko ostalaritzarako 30 milioiko laguntzak, gaueko aisialdirako 8 milioiko laguntza espezifikoak eta Espainiako Gobernuaren Errege Dekretuaren ondorioz Ekonomia eta Ogasun Sailaren bidez ostalaritzarako emandako 45 milioiak. “Beti lagundu izan diogu jarduerari, beste sektore batzuetakoei bezala, pandemiaren ondorio diren inguruabarrek bereziki eragin dietenean”.

Abenduaren 28an hartutako neurrien eragin ekonomikoez jabetuta, beharrezkotzat jo da enpresa eta pertsona autonomo horientzat laguntza-programa berri bat gaitzea 3 irizpide argitan oinarrituta:

Lehenik eta behin, “laguntza hauek **etengabeko hobekuntza-prozesuaren emaitza** dira; izan ere, aurreko programen esperientzia ezarri dugu, ebaluatu ondoren eta sektorearen laguntzarekin eta ekarpenak kontuan hartuta. Horrela, xehetasun tekniko batzuk doitu ditugu justuagoak eta arinagoak izan daitezten”.

Bigarrenez, oinarrizko beste helburu bat da “laguntza hauek **ahalik eta ekitatiboan** izatea, uste baitugu neurriek ez dutela eragin berbera izan establezimendu-mota guztietan. Horretarako, laguntza 3 multzotan modulatu dugu, berariaz bideratzeko eraginik handiena izan duten establezimenduetara, gaueko aisialdikoetara, hain zuzen ere”.

Eta, hirugarrenez, “**enplegua da eta izango da beti Sailaren jardueraren oinarrian egongo den gakoetako bat**. Deialdian sartu den berrikuntza nagusia **establezimendu bakoitzeko langile-kopuruaren kalkulua da**. Oraingoan, eta sektorean **enpleguari eusteko ahalegin handiagoa egin behar izan duten jardueraren titularrak onuradun izateko**, 2021eko azken hiruhilekoan alta egoera zeuden langileen **batez besteko plantillaren txostena** hartu da kontuan”.

Horrela, laguntza ulertu eta bideratu da, aurreko kasuetan bezala, jarduerari eusten laguntzeko oinarrizko helburuarekin, baina baita enplegua babesteko helburuarekin ere. Berez, jarduerari eusteari dagokionez, baldintza hori 4 hilabetetik 6ra luzatu da. **Laguntza-programak 22 milioi euro izango ditu**, eta hiru lerro bereizitan planteatu da:

- Lehenengoa, II. taldean sailkatutako establezimenduentzat, kontzertu-aretoentzat eta I. eta III. taldeetan sailkatuta ez dauden eta ixteko ordutegia 1:00ak arte duten ostalaritzako establezimenduentzat.
- Bigarren lerroa III. taldean sailkatutako establezimenduentzat, pubentzat eta ixteko ordutegia 2:30 arte duten taberna berezientzat.
- Hirugarrena, IV. taldeko lokalentzat, eta ixteko ordutegia 4:30 arte duten dantzarako eta dibertsiorako establezimenduentzat.

Laguntzaren kopurua, enplegua babesteko bigarren helburu horri erantzunez, establezimenduko langile-kopuruaren arabera ezartzen da. Kalkulu hori egiteko, batez besteko plantillaren formula erabiltzen da. II. taldearentzat % 50eko ehunekoa ezartzen da, bai lan-bizitzaren txostenerako bai batez besteko plantillaren txostenerako. III. taldean ehunekoa % 60koa da lan-bizitzaren txostenerako eta % 40koa batez besteko plantillaren txostenerako, eta III. taldean ehunekoa % 80 lan-bizitzarako eta % 20 batez besteko plantillarako.

Horrela bada, kalkulu hori kontuan hartuta, kopuruak honela ezarrita geratuko lirateke:

1.- **II. taldeko establezimenduak**, kontzertu-aretoak eta I. eta III. taldeetan sailkatuta ez dauden ostalaritza-establezimenduak 11 ataletan banatu dira eta kopuruak **2.000 eurotik 6.000ra bitartekoak dira**.

2.- **III. taldeko establezimenduak, pubak eta ixteko ordutegia 2:30 arte duten taberna bereziak** 4 ataletan banatu dira, eta kopuruak **6.000 eurotik 25.000 eurora bitartekoak dira**.

3.- **IV. taldeko establezimenduek, ixteko ordutegia 4:30 arte duten dantzarako eta dibertsiorako establezimenduek** ere 4 atal dituzte, eta kopuruak **10.000 eurotik 70.000 eurora bitartekoak dira**.

ESTABLEZIMENDU MOTA	Lan-bizitzaren txostena	Batez besteko plantillaren txostena
II. TALDEA	% 50	% 50
III.TALDEA	% 60	% 40
IV.TALDEA	% 80	% 20

ESTABLEZIMENDU MOTA	Langile-kopuruaren zenbaketa	EMAITZA	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
II. TALDEA	(Blokea 1 x 0,50) + (Blokea 2 x 0,50)	1 edo 2	2.000,00 €
		3	2.300,00 €
		4	2.400,00 €
		5 edo 6	2.500,00 €
		7	2.600,00 €
		8	2.700,00 €
		9	2.800,00 €
		10	2.900,00 €
		11tik 20ra	3.200,00 €
		21etik 30era	4.500,00 €
		31tik gora	6.000,00 €
III. TALDEA	(Blokea 1 x 0,60) + (Blokea 2 x 0,40)	1etik 4ra	6.000,00 €
		5etik 10era	10.000,00 €
		11tik 20ra	20.000,00 €
		21etik gora	25.000,00 €
IV. TALDEA	(Blokea 1 x 0,80) + (Blokea 2 x 0,20)	1etik 4ra	10.000,00 €
		5etik 10era	30.000,00 €
		11tik 20ra	50.000,00 €
		21etik gora	70.000,00 €

Seguridad

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LOS PLANES DE EMERGENCIA EXTERIOR DE LAS EMPRESAS BEFESA, BILBAÍNA DE ALQUITRANES Y CLH

- **El objetivo de estos planes de protección civil es articular la mejor respuesta a posibles hipótesis accidentales cuya repercusión conlleve una afección exterior a las propias empresas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy los planes de Emergencia Exterior de las empresas BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Amorebieta), BEFESA ZINC ÓXIDO SAU (Sondika), BILBAINA DE ALQUITRANES SA (Barakaldo) y CLH (EXOLUM) SA (El Calero). Los planes de emergencia exterior son planes de protección civil de carácter especial y tienen como finalidad articular la respuesta externa ante determinadas hipótesis accidentales que puedan producirse en dichas instalaciones con la consiguiente afección exterior a la propia empresa.

Este tipo de planes, encuadrados en las directivas europeas denominadas coloquialmente SEVESO, vienen a completar las medidas que las empresas han previsto en su plan de emergencia interior.

El procedimiento de elaboración de los planes citados ha seguido lo estipulado en la normativa de referencia, es decir, fueron informados favorablemente por la Comisión de Protección Civil de Euskadi en sesión ordinaria del 9 de diciembre del 2020 y recibieron, igualmente, el informe favorable del Consejo Nacional de Protección Civil el 19 de octubre de 2021.

Trabajo y Empleo

PLAN ESTRATÉGICO INTERDEPARTAMENTAL DE ECONOMÍA SOCIAL (PEIES)

El Consejo de Gobierno ha conocido hoy el primer Plan Estratégico Interdepartamental de Economía Social que, con el título ‘La Fuerza de lo colectivo enraizado en el territorio’, adopta una visión integral de todas las familias de la Economía Social, e incorpora las aportaciones de los Departamentos del Gobierno Vasco implicados, lo que permite dar coherencia, complementariedad y coordinación de las diferentes políticas y normativas implicadas, y prevé una inversión pública de 328,5 millones de euros en cuatro años.

La Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, ha comunicado su intención de solicitar la comparecencia ante el Parlamento y ha recordado que el Plan forma parte de un compromiso, responde a los objetivos del Gobierno en la presente legislatura para reforzar el papel de la economía social, que se completó con el acuerdo parlamentario aprobado el 4 de marzo de 2021 para elaborar un marco estratégico de la Economía Social desde la transversalidad interdepartamental y con la participación del sector.

Igualmente, responde al objetivo fijado en la Estrategia Vasca de Empleo 2030, que sitúa el emprendimiento colectivo como uno de los ejes sobre los que actuar en esta década con más insistencia, al estar demostrado que esa forma colectiva de emprender proyectos permite adaptarse mejor a las circunstancias cambiantes derivadas de las grandes transformaciones energético-ambiental, digital y sociosanitaria. A ello se suma la reciente aprobación por parte de la Comisión Europea, el pasado 9 de diciembre, del Plan Europeo de Economía Social, que apuesta por profundizar en una fórmula de economía colaborativa y participativa en la que Euskadi tiene larga experiencia en todos los sectores.

En ese marco alineado de políticas, el Plan Estratégico atiende al deseo compartido por parte del sector y por el Parlamento de contar con un documento de referencia al servicio del conjunto de actores intervinientes en la Economía Social: empresas y entidades, asociaciones sectoriales, instituciones, organismos de intermediación y organismos de desarrollo económico. Con ese objetivo se parte de un diagnóstico previo, y se determinan las necesidades, prioridades y retos que las distintas familias de la Economía Social han planteado.

La elaboración se ha prolongado todo el año, a partir de entrevistas personales, grupos de trabajo, reuniones de la Mesa Interdepartamental y, finalmente, la remisión del documento borrador, tanto a los Departamentos del Gobierno Vasco implicados como a los agentes del sector, invitándoles a la realización de aportaciones y sugerencias. Se ha puesto especial acento en la cultura de la transversalidad, teniendo presentes las conexiones entre agentes públicos y


privados implicados y atendiendo a la articulación con otros Planes que inciden en el rumbo y ritmo en que la Economía Social avanzarán en los años venideros (Plan de Emprendimiento, Estrategia Vasca de Empleo y Plan de Empleo, Plan de Desarrollo Industrial e Internacionalización 2021-2024, etc.).

Sobre esa base, se definen los valores que representa la Economía Social, que están también referenciados a los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas 2030: promoción de la solidaridad interna y con la sociedad que favorece el compromiso con el desarrollo local, la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, la cohesión social, la inserción de personas en riesgo de exclusión social, la generación de empleo estable y de calidad, la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y la sostenibilidad.

Objetivos y recursos

Con la participación de siete departamentos y varios organismos autónomos más las distintas familias de la Economía Social, a través de 25 entrevistas y reuniones de trabajo, se ha cerrado este Plan Estratégico que prevé ir aumentando todos los años la inversión pública hasta sumar los 328,5 millones en el conjunto de los cuatro años. Se articula en seis ejes estratégicos, entre los que destaca en primer lugar el fomento del emprendimiento colectivo, como fórmula válida para la creación de riqueza y empleo de calidad, la formación, para lograr mayor conocimiento y capacitación de nuestros jóvenes con el objeto de aumentar el interés por la Economía Social, y la visibilización de una forma alternativa de economía que, como reza el título del Plan, se enraíza en el territorio.

OBJETIVOS ESTRATÉGICOS DEL PLAN ESTRATÉGICO DE ECONOMÍA SOCIAL



Estos 6 ejes estratégicos se desarrollan a través de otros 12, que luego se concretan en diez acciones agrupadas en líneas de actuación, una de ellas específicamente para fomentar la igualdad de género.

OBJETIVO: EXTENDER EL MODELO DE EMPRENDIMIENTO EN ECONOMÍA SOCIAL: MÁS Y MEJORES EMPRESAS Y EMPLEO
EJE 1: Impulsar el emprendimiento en Economía Social, el fortalecimiento de las empresas existentes, la mejora en la red de informantes y prescriptores y de los servicios de asesoramiento
EJE 2: Favorecer la demanda de bienes y servicios de la Economía Social a través de la compra pública responsable
OBJETIVO: PROMOVER LA FORMACIÓN EN ECONOMÍA SOCIAL
EJE 3: Favorecer e integrar la formación en Economía Social en todas las etapas educativas, entre los agentes concernidos y en el propio sector
OBJETIVO: ASEGURAR Y EXTENDER EL ACCESO A LA FINANCIACIÓN DE LAS EMPRESAS/ENTIDADES DE LA ECONOMÍA SOCIAL Y DOTAR DE COHESIÓN Y ATRACTIVO AL MODELO A TRAVÉS DE LA INTERCOOPERACIÓN
EJE 4: Facilitar el soporte financiero necesario para nuevas iniciativas empresariales, empresas y entidades pequeñas haciendo viable y sostenible su consolidación
EJE 5: Dotar de mayor cohesión y atractivo al modelo, mejorando su protección social
OBJETIVO: HACER MÁS ATRACTIVO Y DAR MAYOR VISIBILIDAD AL MODELO DE ECONOMÍA SOCIAL, DIFUNDIENDO SUS VIRTUDES
EJE 6: Mejorar la visibilidad y receptividad social del modelo de Economía Social como medio para facilitar su extensión y consolidación, asegurando la difusión de su actividad
EJE 7: Desarrollar el sistema de medición y conocimiento sobre la Economía Social
OBJETIVO: MEJORAR LA GOBERNANZA DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS Y FOMENTAR LA COOPERACIÓN PÚBLICO-PRIVADA
EJE 8: Mejorar la eficiencia y eficacia de las políticas públicas de apoyo a la Economía Social
EJE 9: Analizar y desarrollar el marco jurídico de la Economía Social eliminando las barreras que limitan su despliegue
EJE 10: Fomentar la igualdad de género en las empresa y entidades de la Economía Social
EJE 11: Propiciar alianzas y complementarie3dades entre las familias de la Economía Social a través de EGES como lugar de encuentro
OBJETIVO: PROMOVER LA PARTICIPACIÓN DE TRABAJADORES/AS EN LAS EMPRESAS
EJE 12: Impulsar el desarrollo de la RSE y los ODS y la participación de trabajadores/as en las empresas

Trabajo y Empleo

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL NOMBRAMIENTO DE JUAN CARLOS IBARROLA COMO DIRECTOR DE FORMACIÓN DE LANBIDE ANTE LA JUBILACIÓN DE JESÚS LOSADA

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, el consejo de gobierno ha aprobado el nombramiento de Juan Carlos Ibarrola como director de Formación de Lanbide ante la jubilación de Jesús Losada prevista para el 1 de febrero.

Ibarrola es Licenciado en Ciencias Políticas y Sociología por la Universidad de Deusto y cuenta con un Master en Marketing por la UPV-EHU. La mayor parte de su carrera profesional ha estado ligado a la Fundación Vasca para la Formación Profesional Hobetuz, desde su creación, y asumió la dirección territorial de Bizkaia en 1997 para pasar a ser su director gerente desde 2010. En el año 2020 se incorporó a Lanbide como Coordinador del Servicio de Formación Profesional para el Empleo.

En este último año, en virtud del decreto propuesto por la Vicelehendakari Idoia Mendia y aprobado en junio por el Consejo de Gobierno, se creó una nueva Dirección de Prestaciones e Inclusión, hasta entonces vinculada a Formación, de forma que se consiguiera una mayor eficacia en la gestión y planificación de la Renta de Garantía de Ingresos y el Ingreso Mínimo Vital, este último incorporado como encomienda de gestión y en fase de transferencia e integración plena en el sistema vasco.

De esta forma, Losada comenzó la reorientación de la Dirección de Formación para los nuevos retos que deberá asumir Ibarrola, teniendo en cuenta que la Estrategia Vasca de Empleo 2030 sitúa la preparación permanente de las personas trabajadoras como una necesidad para garantizar que puedan mantener y acceder a empleos de calidad, ajustado a las demandas de las empresas en procesos de transformación acelerada, y que se recogerá como derecho subjetivo, garantizado por Lanbide, en la Ley del Sistema Vasco de Empleo, en fase de elaboración.

Gobernanza Pública y Autogobierno

LA COMISIÓN DE ÉTICA PÚBLICA RENUEVA A SUS DOS VOCALES EXTERNOS A LA ADMINISTRACIÓN

- **El Consejo de Gobierno ha designado hoy a Elsa González y Fernando Tapia como integrantes de este órgano en sustitución de Elisa Pérez y Txetxu Ausín**
- **Los nuevos integrantes del órgano competente para supervisar y controlar el cumplimiento del Código ético de las y los altos cargos del Gobierno tienen un prestigio profesional contrastado en materias relacionadas con la ética, el derecho o la gobernanza pública**

El Consejo de Gobierno ha designado hoy como miembros expertos de la Comisión de Ética Pública a Elsa González Esteban y Fernando Tapia Alberdi. Se trata de dos personas ajenas a la Administración vasca que cuentan con un prestigio profesional contrastado en materias relacionadas con la ética, el derecho o la gobernanza pública y con unas carreras profesionales vinculadas a la docencia universitaria en el campo de la filosofía, la ética o el derecho.

Los dos nuevos vocales de la Comisión de Ética Pública sustituyen a Elisa Pérez Vera y Txetxu Ausín Díez que, tras varios años de dedicación, han presentado su renuncia con la intención de permitir la renovación de este órgano. La magistrada entró a formar parte de la Comisión en 2013 y el filósofo dos años después, en 2015.

Junto a ellos integran la Comisión Olatz Garamendi, Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, que ejerce como presidenta, Jose María Armentia, viceconsejero de Función Pública, en calidad de vocal; y Jon Urbina, director de la Secretaría del Gobierno y Relaciones con el Parlamento, en calidad de secretario, con voz pero sin voto.

El nombramiento de Elsa González y Fernando Tapia a propuesta de la consejera Garamendi pretende dar un nuevo impulso a la Comisión de Ética Pública, evitando caer en la autocomplacencia y en la rutina.

Elsa González es profesora titular de Filosofía Moral del Departamento de Filosofía y Sociología de la Universitat Jaume I (Castellón). Doctora en Filosofía (ética empresarial), esta especializada en ética discursiva, responsabilidad social de la empresa, organizaciones y administraciones públicas, gobernanza cosmopolita y códigos de valores. Sus proyectos investigadores se han centrado en el diseño o asesoramiento en la puesta en marcha de sistemas de gestión ética utilizando diferentes herramientas: código ético y de conducta, informes de ética y responsabilidad social, informes de buen gobierno y establecimiento de líneas éticas, entre otros. Ha participado en numerosos

proyectos de investigación en el Estado español y en otros países. Es miembro de la Asociación Española de Ética y Filosofía Política.

Fernando Tapia es licenciado y doctor en Derecho por la UPV-EHU y ejerce de profesor de Filosofía del Derecho en la universidad pública vasca desde 1997. Actualmente es vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de esta universidad y miembro del grupo de investigación Eticop-It (Ética en Comunidades de Práctica). También ha sido director del Centro de I+D Joxemari Korta y vicerrector de Desarrollo Científico y Transferencia de la UPV-EHU.

La Comisión de Ética Pública está adscrita al Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno y es el órgano competente para recibir observaciones, consultas, sugerencias, quejas o denuncias de posibles incumplimientos del Código Ético y de Conducta firmado por la totalidad de las y los altos cargos y personal eventual de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En función de la gravedad o consecuencia de las acciones u omisiones de la persona firmante del Código Ético y de Conducta, la Comisión de Ética Pública puede proponer al Consejo de Gobierno varias actuaciones que van desde el cese inmediato (si afecta al incumplimiento de los estándares de conducta expresamente recogidos), al traslado al órgano competente para que se proceda a incoar, instruir o sancionar una conducta. Además, la Comisión de Ética Pública contempla entre sus funciones las de impulsar el Código Ético y de Conducta.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

MÁS DE NUEVE MILLONES DE EUROS PARA LA PROMOCIÓN, EL DESARROLLO Y LA DIVERSIFICACIÓN ECONÓMICA DE LOS MUNICIPIOS RURALES INCLUIDOS EN LAS ZONAS LEADER

- **En el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020**
- **Desde 2017 las ayudas comprometidas con cargo a este programa se han acercado a los 39 millones de euros**

El consejo del Gobierno Vasco ha aprobado las bases de la convocatoria para 2022 de las ayudas destinadas a la promoción, desarrollo y diversificación económica de los municipios rurales incluidos en la zona Leader, en el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020, que continúa en vigor en el periodo transitorio hasta la puesta en marcha de la nueva PAC en 2023. La dotación económica para el presente ejercicio supera los nueve millones de euros.

Gestionadas por el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente junto con el Grupo de Acción Local MENDINET, el objetivo de estas ayudas es apoyar el emprendimiento, la contratación, el acceso a la vivienda, las inversiones en creación, ampliación y modernización de empresas y en infraestructuras de servicios básicos y en renovación del entorno rural y litoral.

El ámbito geográfico de aplicación comprende los municipios vascos seleccionados para la zona LEADER (un total de 122, en los que habitan más de 93.000 personas). Las ayudas tienen la consideración de subvenciones no reintegrables, y podrán beneficiarse de ellas las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, con o sin personalidad jurídica o cualquier tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos y actividades previstos en los citados municipios.

Por líneas de apoyo

Esta convocatoria de ayudas cuenta con una dotación presupuestaria de 9.112.000 euros.

El reparto de estos fondos por líneas de ayudas es el siguiente:

- Ayudas para el apoyo al emprendimiento: 140.000 euros
- Ayudas a las inversiones en la creación, ampliación y modernización de empresas: 3.180.000 euros
- Ayudas a la contratación por cuenta ajena 60.000 euros.
- Ayudas para las infraestructuras, servicios básicos y renovación de municipios: 5.432.000 euros.
- Ayudas para la vivienda: 300.000 euros

Presentación de solicitudes

Las personas físicas podrán presentar sus solicitudes tanto de forma presencial como electrónica.

- Canal presencial: las solicitudes se presentarán ante la «Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural MENDINET», con sede en Arkaute, s/n (01192) Vitoria-Gasteiz (Álava).
- Canal electrónico: www.euskadi.eus/servicios

Las personas jurídicas y las entidades sin personalidad jurídica deberán tramitar a través del canal electrónico.

El plazo de presentación de las solicitudes será desde el día siguiente al de la publicación de la orden en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el 25 de marzo de 2022. No obstante, se admitirán las solicitudes presentadas antes de dicho plazo, pero dentro del ejercicio de la convocatoria.

Turismo, Comercio y Consumo

LAS NUEVAS AYUDAS A LA HOSTELERÍA DE 22 MILLONES HARÁN ESPECIAL HINCAPIÉ EN EL OCIO NOCTURNO Y EN LA DEFENSA DEL EMPLEO

El Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, Javier Hurtado, ha comparecido hoy tras el Consejo de Gobierno donde se ha aprobado un **nuevo programa de ayudas a la hostelería y el ocio nocturno vascos dotado con 22 millones de euros**.

El Consejero ha explicado que hasta ahora el sector hostelero de Euskadi ha contado con ayudas por un importe **de 100 millones de euros**, desde las primeras ayudas Covid de 15 millones, las ayudas a la hostelería vasca de 30 millones, las ayudas específicas al ocio nocturno de 8 millones y las ayudas fruto del Real Decreto del Gobierno de España, a través del Departamento de Economía y Hacienda, que aportó 45 millones al sector hostelero. “Siempre hemos apoyado la actividad, como la de otros sectores, cuando las circunstancias fruto de la pandemia la han afectado especialmente”.

Conscientes del impacto económico de las medidas adoptadas el 28 de diciembre, se ha estimado necesario habilitar un nuevo programa de ayudas para estas empresas y personas autónomas que se basan en 3 principios claros:

En primer lugar, “estas ayudas son **fruto del proceso de mejora continua** ya que hemos aplicado la experiencia de programas anteriores, que han sido evaluados, también con la colaboración del sector y sus aportaciones. Así, se han afinado detalles técnicos para que sean más justas y ágiles”.

En segundo lugar, otro objetivo primordial es “que estas ayudas sean **lo más equitativas posibles** ya que entendemos que la afección no ha sido la misma para todos los tipos de establecimientos. Por ello, hemos modulado la ayuda en 3 grupos para dirigirla específicamente a aquellos establecimientos con mayor nivel de afectación que, en este caso, son los de ocio nocturno”.

Y, en tercer lugar, “**el empleo es y será siempre uno de los ejes claves sobre los que actuaremos** desde el Departamento. La principal novedad incluida en la convocatoria **consiste en el cálculo del número de personas trabajadoras por establecimiento**. En esta ocasión, con el objetivo de **beneficiar a aquellos titulares** de la actividad **cuyo esfuerzo haya sido mayor para el mantenimiento del empleo** en el sector, se contabiliza el **Informe de Plantilla Media** de trabajadores en situación de Alta en el último trimestre del 2021”.

Por tanto, la ayuda se concibe y articula con la finalidad básica de contribuir al mantenimiento de la actividad como en ocasiones anteriores, pero también de

defensa del empleo. De hecho, en el tema del mantenimiento de la actividad se amplía de 4 a 6 meses ese requerimiento. El **programa de ayudas dotado de 22 millones de euros** se plantea en tres líneas diferenciadas:

- La primera, para establecimientos del Grupo II, salas de conciertos y establecimientos de hostelería no incluidos en los grupos I y III con horario de cierre a la 1:00.
- Una segunda línea, para establecimientos del Grupo III, pubs y bares especiales con horario de cierre a las 2:30 horas.
- Una tercera, para locales del Grupo IV, establecimientos de baile y diversión con horario de cierre a las 4:30 horas.

La cuantía de la ayuda, en respuesta a ese segundo objetivo de defensa del empleo, se establece en función del número de personas trabajadoras en el establecimiento. Para ese cálculo se establece la fórmula de la plantilla media. Para el grupo II se establece un porcentaje del 50% tanto para el informe de vida laboral como para el informe de plantilla media. En el grupo III el porcentaje es del 60% para vida laboral y 40% para plantilla media, y en el grupo III estos porcentajes son del 80% para vida laboral y 20% para plantilla media.

Por tanto, teniendo en cuenta este cálculo las cuantías quedarían establecidas de la siguiente forma:

1.- **Los establecimientos del Grupo II**, salas de conciertos y establecimientos de hostelería no incluidos en los grupos I y III, se dividen en 11 tramos con importes que van desde **los 2.000 a los 6.000 euros**.

2.- **Los establecimientos del Grupo III, pubs y bares especiales con horario de cierre a las 2:30 horas** se dividen en 4 tramos con importes desde **los 6.000 a los 25.000 euros**.

3.- **Los establecimientos del Grupo IV, establecimientos de baile y diversión con horario de cierre a las 4:30 horas** cuentan también con 4 tramos con importes desde **los 10.000 hasta los 70.000 euros**.

TIPO DE ESTABLECIMIENTO	Informe vida laboral	Informe de plantilla media
GRUPO II	50%	50%
GRUPO III	60%	40%
GRUPO IV	80%	20%

TIPO DE ESTABLECIMIENTO	Cómputo del número de trabajadores	RESULTADO	CUANTÍA DE LA AYUDA
GRUPO II	(Bloque 1 x 0,50) + (Bloque 2 x 0,50)	1 ó 2	2.000,00 €
		3	2.300,00 €
		4	2.400,00 €
		5 ó 6	2.500,00 €
		7	2.600,00 €
		8	2.700,00 €
		9	2.800,00 €
		10	2.900,00 €
		De 11 a 20	3.200,00 €
		De 21 a 30	4.500,00 €
		Más de 31	6.000,00 €
		GRUPO III	(Bloque 1 x 0,60) + (Bloque 2 x 0,40)
De 5 a 10	10.000,00 €		
De 11 a 20	20.000,00 €		
Más de 21	25.000,00 €		
GRUPO IV	(Bloque 1 x 0,80) + (Bloque 2 x 0,20)	De 1 a 4	10.000,00 €
		De 5 a 10	30.000,00 €
		De 11 a 20	50.000,00 €
		Más de 21	70.000,00 €